
01 07
“LA HOYA” HERRIXKA

1936. urtean aurkitu zuten, iparraldetik (Araba) 800 metrotara kokatutako landa partzela batean. Armando Llanos-ek La Hoya herrixka induskatu zuen 1973 eta 1989. urteen artean. Hala ere, bere azalera osoko %15 induskatu zuen bakarrik (40.000 m2 inguru); alegia; bere hiri egitura eta mendez mende, bertan egindako okupazioak atzemateko hedadura nahikoa.

Herrixka 1200. urtean K.a. agertu zen (brontze aro amaiera) eta 250. urte inguru K.a. utzi egin zen (Burdin Aro amaiera). Idazle klasikoen arabera, eragin zeltiberiarreko Beroniarrak izan ziren hemengo biztanleak.

Herrixka lautada batean kokatuta zegoen eta, horrenbestez, zaila zen hura defendatzea, horregatik, harresi sendo batez inguratuta zegoen. Gaur egun haren zati handi bat kontserbatzen da. Harresi hura, ziur aski, fase desberdinetan eraiki eta behin eta berriro konpondu zen. Latesi batek eratutako lehenengo barruti bat egon omen zela susmatzen da.

Hasiera batean, badirudi bizitzeko erabiltzen zituzten eraikinak harresira itsatsita zeudela, eta herrixkaren



“La Hoya” herrixkaren aire argazkia. Iturria: Arabako Foru Aldundia. Iparraldeko aire bista.



La Hoyako harresia. Iturria: Arabako Foru Aldundia.

erdigunean ez zegoela eraikinik, abeltzaintzarako erabiltzeko helburuarekin.

Zenbait idazlek dio hainbat herrixka zeudela inguruetan, Biasteriko mendixkaren inguru. Azken hura errazago defenda zitekeen, eta bertan, nekazariak eta merkatariak bizi ziren La Hoya bezalako lautadan kokatuta zeuden herrixkak kontrolatzen zituzten “aristokrazia gudaria” bizi zen.

Herria pixkanaka eraikinez bete zen; bere kaleak zolatu ziren eta eltzegintzarako tornu azkar berriak eta errota zirkularra erabili ziren; burdina brontze ordez erabiltzen hasi zen, merkataritza elkar trukeak zabaldu ziren, harresia sendoago bilakatu zen, eta abar.

Piñuelas gertuko parajean La Hoyarekin lotutako nekropolietako bat kokatu zen. Bertan, aurkitu ziren gudarien errautsetarako hogeita hamar kutxa inguru, etxeko gauza ugariekin lurperatuta.

IV. mendean, K.a, herrixka eraso eta guztiz suntsitu zuten, beraz, bertako biztanleak Biasteri kokatuta dagoen mendixkak eskaintzen zuen segurtasunaren bila joan ziren.


Gaur egun, herrixka bisitatu daiteke. Interpretazio zentro txiki bat dago indusketetan aurkitutako hainbat objekturekin eta gainontzekoak BIBAT (Arabako Arkeologia Museoa) museoan gordeta daude, Vitoria-Gasteizen.

Gehiago jakiteko: LLANOS, ARMANDO: Mil años en la vida en el poblado Berón de la Hoya, Laguardia-Álava. Gasteiz: Arabako Foru Aldundiko argitalpen zerbitzua, 2005.

Para saber más: LLANOS, ARMANDO: *Mil años en la vida en el poblado Berón de la Hoya*, *Laguardia-Álava*. Vitoria : Servicio de publicaciones de la Diputación Foral de Álava, 2005.



Ortoargazkia 1968, Araba. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Arabako Foru Aldundia. Aztarnategia oraindik induskatu gabe zegoen. Hala ere, harresiaren ingurua argi ikus daiteke.



Ortoargazkia 1984/85. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. IGN. Interpretazio zentroa eta induskatu gabeko sektoreak ikus daitezke, 2008ko ortoargazkiaren egoerarekin konparatuta.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 533952.4670 // Y: 4712593.0810 // Z: 599 m. Eskuineko behe angeluan, interpretazio zentroa ikus daiteke. Ortoargazkiari esker, induskatutako zonaldeko eraikinei dagozkien egituren antolaketa irudikatu daiteke. Induskatutako zonalde nagusiaz gain, atzeman daitezke harresitik gertu kokatutako induskatutako beste sektoreak.